

Gaur, asteartea, arratsaldeko eskolak normaltasunez emango dira

2016/02/16

Elurte-egoeretarako protokoloa abian egon arren, aurrez aurreko eskolak bertan behera uzteko finkatuta dauden irizpideak betzen ez direnez, gaur, asteartea, otsailak 16, eskolak normaltasunez eskainiko dira arratsaldeko txandan. 18:00etan emango da jakitera webgune honetan eta @MUnibertsitatea twitter-kontuan biharko txandako eskolei buruzko erabakia.

Gerta liteke egunean zehar egoera klimatologikoak okerrera egitea eta unean uneko erabakiak hartu behar izatea. Hori gertatuko balitz, aipatutako bideetatik jakinaraziko da erabakia.

Nolanahi ere, gogoratu lehentasuna segurtasuna dela beti. Protokoloa abian jarri ondoren, kasu bakoitza kontuan hartuta, klaseetara ez etotzeko aukera malgutasunez aztertuko da. Azterketak, aurkezpenak eta lanak entregatzea ikasgaiaren hurrengo ikastordura atzeratuko dira, betiere ikasgaiaren arduradunak ez badu besterik proposatzen.

